

Nekearen aldarrikapena

Dekameronearen pasadizo bat ekarri digu Jose Inaziok, emakumea behor, eta behorra atzera emakume, bilakatzeko ahal omen zuen fraidearena. Ezin izan dut Inazio Mujika Iraolaren *ttakun* baten aspaldiko ekarpen bat gogoratzea ekidin: *mulier tua mala burra est*, zeinek, itxura gorabehera, ez baitu “zure emaztea asto txarra da” esan nahi. Hizkuntza batetik itzultzeko tenorean, bizitzan legez, adiskide faltsuak oso kontuan hartzekoak direla ohartarazi berri digu Fernando Reyk *Senez* aldizkariako artikulu batean.

Ni ere, erantzun hau prestatzen ari nintzelarik, adiskide faltsu baten *besarte* erakargarrian erori naiz, *musuz* aurrera erori ere. Boccaccio-ren antzaldaketari jarraipen, transbertzalea ez bada, transgenerikoa behintzat bai, eman nahi nion Ovidiorenean orain asko irakurritako eta gogoan atxikitako metamorfosi jakingarri batekin, *queer* azterketa bat ongi mereziko lukeena: ninfa ezinago eder bat, larrua inori ematen ez ziona, bortxatu du Neptuno jainkoak hondartzan zebilen batean. Ondoren jainkoak, ordain gisa, edozein gauza eskatzeko esan dio, onartuko diola. Neskak gizon bihurtzeko eskatu dio, horrela bide batez zauritu ezina edo, irudiaren nondik norakoa argiago uztearren, *impenetrablea* izango da, eta inork ezinago dio kalte bera egin. Geroztik, neska izandako mutilaren gerlari fama hedatuko da. Zentauroen kontrako gudu batean, haietariko asko hil ondoren, zentauro bat oldartu zaio, nork eta zentauro batek zera esanez “erdigioxon hori, gizon kontuak gizonoi utzi eta gudu zelaitik hanka egin ezan”. Biak buruz burukoari lotu zaizkio, baina zaldigizonak ezin dio besteari ezpata (faloa) inondik sartu, sexu aldaketaz geroztik *zaurtezina* delako. Zentauro harroxko hau ere hil, etsaiek hori ezin eraman, gizontasuna oraindik aitortu ez, eta harri pila batek azpian hartuta erail dute gure heroia.



Angel Erro

Apalategi

Basterrereña

Istorioa buruz berritu dut, *Metamorfosiak* aurkitu ditudanean, pasarte hori bilatzera hasi eta segituan lehen aipaturiko adiskide faltsuarekin topo egin dudalako, “*timidi est optare necem*” zioela, eta sexu aldaketaz ahaztu naiz. “Nekearen alde egitea jende mindulinena da” euskaratu dut bat-batean, alban den gaztelaniatzko zutabera jotzeko premiarik sentitu gabe.

Nire errakuntzan nekeak berak esku hartuko zuen; nekeak eta hondar egunotan irakurririko zenbait hausnarketak, bizi gaituen nekeari buruzkoak.

Jokin Muñozek elkarrizketa batean Barajasko atentatuaren ondoren sentitzen duen gatazkarekiko ezaxola erabatekoa aitortzen zuen. Hortik egun batzuetara Fredi Paiak (abenduarien 7ko *Berrian*), berriz, batzuek gatazkaz nekatuta daudela esatearen tema salatu zuen, borrokan ari den herriaren erakuntzan desmotibazioa orokortzearen arriskuaz ohartarazita. Ovidiok, irudi du, arrazoia ematen dio bertsolariari, nekearen alde egitea koldarkeria dela esanez.

Jenio bat gezurtatzea izan badaiteke ere –Ovidioz ari naiz–, esan behar dut NEKATUTA nagoela. Betiko erroreak errepikatuak ikusteaz. Eta hobe litzatekeela abstraktua eraikitzean zehatza suntsitzen dutenak ere nekatuko balira, eta nekadura aktibo bat zabalduko balitz euskal herritarren artean. 18/98 edo *Egunkaria* auzien inguruko bidegabekeriek eta bidegabekeriari eman beharreko erantzun higatuek ere –batzuk bolbora usainekoak– seko nekarazi gaituzten banakook agian deituta gaude XXI mendeko Euskal Herria –ez duena zertan izen hori, ez beste edozein, eraman– eraikitzeko.

Aldarri hau nire golkoan egin bitartean, beranduegi, ohartu naiz Ovidioren itzulpen zuzena “koldarrek *hilketa* dute nahiago” dela.

Neke berri on. ■

NEKATUTA nago betiko erroreak errepikatuak ikusteaz. Eta hobe litzateke abstraktua eraikitzean zehatza suntsitzen dutenak ere nekatuko balira, eta nekadura aktibo bat zabalduko balitz euskal herritarren artean